



## DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2016

### INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA

1. Natura-ondarea babesteari buruzko ezaguera sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzako diru-laguntzak ..... 2
2. Natura-ondarea aktiboki kontserbatzeko jarduerak –EA Eren lurralde-eremuko lur-zaintzako akordioetan sartuta daudenak– finantzatzeko 2016. urteko diru-laguntzak .... 3
3. Garapen jasagarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten Udalei, Mankomunitateei, beste Toki-erakunde batzuei, Toki Erakunde Autonomoei, Tokiko Garapen Agentziei eta Tokiko Merkataritza-sozietateei eman beharreko diru-laguntzak ..... 5
4. Enpresentzako 2016ko diru-laguntzak, ingurumenera zuzendutako inbertsioetarako .... 7
5. Etxebizitza Babesteko Sistema Ofiziala ..... 9
6. Hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obra egiteko eta irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko udalentsako, udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeentzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako diru-laguntzak ..... 17
7. Euskal Autonomia Erkidegoko bizilekuen eraikuntzaren eta hiri-habitataren sektoreko enpresei kudeaketa-sistemak ezartzen, jasagarritasuna bultzatzen eta berritzen laguntzeko proiektuak bultzatzeko diru-laguntzak, 2016ko Eraikal programa ..... 19
8. Etxebizitzak eta eraikinak era efizientean birgaitzeko Renove programaren diru-laguntzak, Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eraikian esku hartzeko proiektuak prestatzeko eta haien ondoriozko obrak egiteko..... 21
9. Birgaitze Integratuko Areetan edo Bizitegi Area Degradatuetan urbanizatutako eta eraikitako ondarea birgaitzeko diru-laguntzak..... 23
10. Eskolako Agenda 21 programak garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko diru-laguntzak (2016-2017 ikasturtea) ..... 25
11. Ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuentzako diru-laguntzak ..... 27
12. Informazio geografikoa hobetu eta udal mapak egiteko diru-laguntzak ematea..... 29
13. Paisaiaren Ekintza Planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak ..... 31



#### 1.- Izenburua

**Natura-ondarea babesteari buruzko ezaguera sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzako diru-laguntzak**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2015eko azaroaren 25ekoa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena; horren bidez, natura-ondarea babesteari buruzko ezaguera sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzako diru-laguntzak arautu eta horiek emateko deialdia egiten da 2016. urterako (2015eko abenduaren 4ko EHAA, 232 zk.).

#### 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da honako hauetan aplikatutako azterlanak eta ikerketa-lanak egitea sustatzea: Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen eremuko natura-ondarea kontserbatzea; Natura 2000 Sarearen eremuak, espazioen arteko koherentzia hobetzea barne; Basa faunan eta floran arriskuan dauden espezieak; eta, biodibertsitatearen beste elementu batzuk, hala nola Batasunaren eta eskualdearen intereseko habitatak, hezeguneak, espezie exotiko inbaditzaileak, pasaia, eta abar.

#### 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Epe barruan aurkeztutako 29 eskaeretatik 13 ikerketa-lan lagundu dira eta 4 proiektu ezin izan dira diruz lagundu kreditu erabilgarria (160.000,00 €) agortu baita.

Araban 3 proiektu lagundu dira diruz (guztietatik % 23), Bizkaian 5 proiektu (% 38,59) eta Gipuzkoan 5 proiektu (% 38,5). Aurrekontuari dagokionez, Araban diru-laguntzak % 23 dira; Bizkaian % 27 eta Gipuzkoan % 50.

Gaiaren arabera, proiektu gehienak flora eta fauna eta basa flora kontserbatzearekin lotutako hainbat alderdiri buruzkoak dira. Maizagoak faunarekin lotutakoak dira.



## 1.- Izenburua

**Natura-ondarea aktiboki kontserbatzeko jarduerak –EAEren lurralde-eremuko lur-zaintzako akordioetan sartuta daudenak– finantzatzeko 2016. urteko diru-laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2016ko maiatzaren 10ekoa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita natura-ondarea aktiboki kontserbatzeko jarduerak –lur-zaintzako akordioetan barne hartutakoak– finantzatzeko laguntzen 2016ko deialdia, EAEren lurralde-eremuan (EHAA, 101 zk., maiatzaren 30ekoa).

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen bidez, bultzatu nahi da zaintzarako akordioak lortzea, elkarrekin jarduerak egin ditzaten lurren jabe edo erabiltzaileek edota baliabide naturalen aprobetxamendu- edo erabilera-eskubideen titularrek eta zaintza-erakundeek. Honako hauek izan daitezke zaintza-erakundeak: gizarte-eragileak, fundazioak edo bestelako erakunde pribatuak, betiere irabazi-asmorik gabeak eta helburuen artean dutenak natura-ondarearen eta garapen jasangarriaren alde egitea, horretarako EAEko eremuan eginez ingurumena eta paisaia aktiboki kontserbatzeko, lehengoratzeko eta integrazzeko jarduerak.

Natura-ondarearen kontserbazioaren alde jardutea helburu duten jarduerak diruz laguntzeko programa baten barruan daude laguntza hauek, eta, diru-laguntza hauekin, helburu hori duten kontserbazio-jarduerak egin behar dira, hain zuzen ere EAEko lurralde-zaintzako akordioetan sartuta dauden jarduerak, betiere honako hauek ukitzen dituztenak: Natura 2000 Sarea, beste eremu babestu batzuk, EAEko hezeguneetako LAPeko II. eta III. taldeetako hezeguneak, eta aurreko epigrafeetan sartzen ez diren beste lur batzuk, hauek hain zuzen ere: hegazti eta habitatei buruzko 92/43 zuzentarauaren eranskinetan edo arriskuan dagoen basafiora eta basafaunaren EAEko katalogoan sartuta dauden interes komunitarioko basafiora eta basafaunako habitat edo espezieak dituzten lurak.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Eskaera-kop.: 11

Eskatutako jarduera-kop.: 11

Diruz lagundutako jarduera-kop.: 7

Diru-laguntzaren zenbatekoa: 160.000 €

Emandako zenbatekoa: 132.804 € (aginduan aurreikusitako zenbatekoaren % 83)

Jarduera-motak:

- Anfibioen eta narrastien kontserbaziorako jarduerak: proiektu bi.



- Ingurumena eta paisaia kontserbatu, lehengoratu eta integrazteko jarduerak (galeria-basoa eta baso autoktonoa, palaxuak sortzea, bilduma botanikoa, mendi publikoetan hesiak jartzea): 4 proiektu.
- Padurarekin muga egiten duten lursailak zaintzea: proiektu 1.

Diru-laguntzen programak harrera ona izan zuen, eta azpimarratu beharra dago aurkeztutako proiektuak bat zetozeala deialdiaren helburuarekin, diru-laguntzaren lehentasunezko lerroekin eta egindako jardurekin.



### 1.- Izenburua

**Garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten Udalei, Mankomunitateei, beste Toki-erakunde batzuei, Toki Erakunde Autonomoei, Tokiko Garapen Agentziei eta Tokiko Merkataritza-sozietateei eman beharreko diru-laguntzak**

### 2.- Araua

2016ko maiatzaren 9ko AGINDUA, Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburuarena, garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten Udalei, Mankomunitateei, beste Toki-erakunde batzuei, Toki Erakunde Autonomoei, Tokiko Garapen Agentziei eta Tokiko Merkataritza-sozietateei eman beharreko diru-laguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dituen eta horien deialdia egiten duena.

### 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da diru-laguntzak ematea garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Udalei, Mankomunitateei, beste Toki-erakunde batzuei, Toki Erakunde Autonomoei, Tokiko Garapen Agentziei eta Tokiko Merkataritza-sozietateei. Ekintza horiek bat etorri behar dute lerro hauekin:

- a) Lurzoru kutsatuak. Tokiko titulartasun publikoko lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketa- eta berreskuratze-lanak sustatzen dituzten ekintzak.
- b) Klima-aldaketa eta atmosfera. Inguruneko airearen kalitatearen hobekuntza sustatzen duten ekintzak, zaratari buruzko ekintzak, eta klima-aldaketa EAEn moteltzera (berotegi-efektuko gasen emisio garbiak murriztea) eta berari egokitzen (klima-aldaketaren ondorioak murrizteko plangintzak eta ekintzak) zuzendutako ekintzak.
- c) Kapital naturala eta biodibertsitatea. EAeko dibertsitate biologikoa kontserbatzearen, lehengoratzearen edo hobetzearen aldeko ekintzak..
- d) Jasangarritasunerako hezkuntza. Tokiko Agenda 21en eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa sustatzen duten ekintzak.



## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Jarraian laburtzen dira deialdiaren emaitzak:

Diru-laguntzen lerroa	Aurrekontu-zuzkidura	Eskabideak	Emandako diru-laguntzak	Finantziatutako proiektuak
Lurzoru Kutsatuak	550.000 €	21	517.480,98 €	18
Klima-aldaketa eta Atmosfera	550.000 €	26	722.982,66 €	20
Kapital naturala eta Biodibertsitatea	550.000 €	36	409.239,42 €	17
Jasangarritasunerako hezkuntza	160.000 €	52	160.000,00 €	48
Guztira	1.810.000 €	135	1.810.000 €	103

2016rako diru-laguntzen deialdiaren emaitzei dagokienez, jarduera horiek gauzatzeko epea 2018ko abenduaren 31n bukatuko denez, eskura dauden datu bakarrak diruz lagundutako proiektuetarako aurreikusten den ingurumen-inpaktuari buruzkoak dira:

Diru-laguntzen lerroa	Aurreikusitako ingurumen-inpaktua
Lurzoru Kutsatuak	5,3 ha ikertzeko eta 6,4 ha berreskuratzeko.
Klima-aldaketa eta Atmosfera	Saihestuko da atmosferara urtean 909 tona CO2 baino gehiago, 277 kg partikula baino gehiago eta 4.048 NOx kg isurtzea
Kapital naturala eta Biodibertsitatea	EB edo eskualde mailan interesa duten habitat naturalen 334 hektarea lehengoratu edo hobetuko dira, eta hobetu ere kostaldeko iratzeen egoera hobetuko da, gune egonkorak sortu arte. Gainera, ibai-habitata hobetuko dira igaraba eta bisoiaren moduko espezie enblematikoak bertan garatzeko. Jarduera horietako asko ibaiertzeko kilometro askotan egiten dira. Diru-laguntzen agindu honen baitan, kalkulatu da 120 km ibaiertz kartografiatuko direla, geroago hobekuntza-neurriak eta espezie inbaditzaileak ezabatzeko neurriak ezartzeko. Gainera, 3 tona baino gehiago hiri-hondakin solido ezabatzeko dira ibaiertzetatik, ibaiak garbitzearen bitartez. Mehatxupearan dauden Espezieen Euskal Katalogoan sartutako espezieen kontserbazio-egoera hobetzearen alde lan egingo da.
Jasangarritasunerako hezkuntza	80 euskal udal baino gehiago inplikatu, 352 ikastetxe eta lehen eta bigarren hezkuntzako 200.000 ikasle baino gehiago. Horiek guztiek hobekuntzarako proposamenak egin dituzte klima-aldaketa, biodibertsitate eta kontsumo arduratsuaren alorretan, besteak beste.



## 1.- Izenburua

**Enpresentzako 2016ko diru-laguntzak, ingurumenera zuzendutako inbertsioetarako**

## 2.- Araua

202/2015 DEKRETUA, urriaren 27koa, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituena.

2015eko abenduaren 16ko AGINDUA, Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburuarena, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen 27ko 202/2015 Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzen deialdia 2016ko ekitaldirako egiten duena.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da ingurumena babesteko inbertsioak egiten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko enpresentzako diru-laguntzak ematea. Bi prozedura bereizten dira diru-laguntzen eskabideetarako. Diru-laguntzak jaso ditzaketen lerroak honako hauek dira:

Prozedura	Diru-laguntzen lerroa
Arrunta	EBren arauetatik harago joateko inbertsioak Hondakinen birziklapen eta berrerabilera Ingurumen-azterlanak
Erraztua	ETEentzako aholkularitza Inbertsio estrategikoak Aurreko azterlanak

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Jarraian laburtzen dira deialdiaren emaitzak:

Prozedura	Diru-laguntzen lerroa	Aurrekontu-zuzkidura	Aurkeztutako proiektuak	Onartutako proiektuak
Arrunta	EBren arauetatik harago joateko inbertsioak	1.155.000 €	48	29
	Hondakinen birziklapen eta berrerabilera		4	2
	Ingurumen-azterlanak		3	3
Erraztua	ETEentzako aholkularitza	790.000 €	27	23
	Inbertsio estrategikoak		7	7
	Aurreko azterlanak		5	5
Guztira		1.945.000 €	94	69



Proiektu horiek gauzatzearen emaitza hauxe izango da:

Airea (emisio gutxiago)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Berotegi-efektuko gasak: 1.727 t<sub>bk</sub> CO<sub>2</sub>/urte</li> <li>- 106 t partikula/urte</li> <li>- 78 t KOL/urte</li> <li>- 80 t NO<sub>x</sub> /urte</li> </ul>
Ura	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontsumoa murriztea: 1.500.000 m<sup>3</sup>/urte</li> <li>- Isuritako kutsagarriak murriztea: <ul style="list-style-type: none"> <li>o 35 t karga organiko/urte</li> <li>o 57 t beste kutsagarri batzuk (olioak, sulfatoak)/urte</li> </ul> </li> </ul>
Hondakinak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 361 t hondakin arriskutsu murriztea eta/edo birziklatzea urtean</li> <li>- 9.700 t hondakin ez-arriskutsu murriztea eta/edo birziklatzea urtean</li> </ul>
ETE-entzako ahokularitza	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 6 enpresa edo produkturen karbono-aztarna kalkulatzea</li> <li>- Ekoetiketa 4 enpresatan eta 9 produktutan ziurtatzea</li> <li>- Ekodiseinu-sistemak 3 enpresatan jartzea</li> <li>- EMAS ziurtagiria (erregistratzea edo berriztatzea) 7 enpresatan</li> </ul>
Azterlanak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ingurumen-inbertsioen aurreko 3 azterlan</li> </ul>





## 1.- Izenburua

**Etxebizitza Babesteko Sistema Ofiziala**

## 2.- Araua

- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena. (EHAA, 119. zk., 2015eko ekainaren 26a).

**Babes Ofizialeko Etxebizitzen araubidea:**

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, Babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari, eta etxebizitzaren eta lurzoruaeren arloko finantza-neurriei buruzkoa. (EHAA, 59. zk., 2008ko martxoaren 28a).
- AGINDUA, 2011ko irailaren 14koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko eskatu beharreko urteko diru-sarrera haztatuen mugak aldatzeko dena. (EHAA, 187. zk., 2011ko irailaren 30a).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (EHAA, 211. zk., 2012ko urriaren 31).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honen akatsak zuzentzekoa: «Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa». (EHAA, 251. zk., 2012ko abenduaren 28a).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzak erosketa-aukerarekin alokatzeari buruzkoa. (EHAA, 251. zk., 2012ko abenduaren 28a).

**Babes ofizialeko etxeen gehieneko prezioak:**

- AGINDUA, 2010eko azaroaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Babes Ofizialeko Etxebizitzen Gehieneko Prezioak Zehazteari buruzkoa (EHAA, 222. zk., 2010ko azaroaren 18a).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (EHAA, 211. zk., 2012ko urriaren 31).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honen akatsak zuzentzekoa: «Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko



prozedurei buruzkoa». (EHAA, 251. zk., 2012ko abenduaren 28a).

***Babes ofizialeko etxebizitzak eta etxebizitza libre erabilia erosteko finantza-neurriak:***

- AGINDUA, 2010eko urriaren 6koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Etxebizitza Erosteko Finantza-neurriei buruzkoa. (EHAA, 203. zk., 2010eko urriaren 21a).
- 146/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa etxebizitzaren eta lurzoruaeren arloan. (EHAA, 146. zk. 2015eko abuztuaren 4a).

***Alokairuaren sustapena:***

- AGINDUA, 2008ko azaroaren 7koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Babes publikoko etxebizitzak sustatzeko laguntzei eta alokairua bultzatzeko neurriei buruzkoa. (EHAA, 222. zk., 2008ko azaroaren 19a).
- 268/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko finantza-lankidetzakoa etxebizitzaren eta lurzoruaeren arloan. (EHAA, 247. zk., 2011ko abenduaren 30a).

***Bizigune Etxebizitza Hutsen Programa:***

- 100/2004 DEKRETUA, 2004ko ekainaren 1ekoa, honako dekretu hau aldatzen duena: «Etxebizitza Hutsaren Programa» sustatu eta bultzatzen duena, programa horren araubide juridikoa ezartzen duena eta Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA Baltzu Publikoari programa kudeatzeko ardura ematen diona: (VISESA). (EHAA, 110. zk., 2004ko ekainaren 11).
- 61/2009 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, honako dekretu hau hirugarrenez aldatzen duena: 316/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, Etxebizitza Hutsaren Programa sustatu eta bultzatzen duena, programa horren araubide juridikoa ezartzen duena eta programa kudeatzeko ardura «Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa SA» sozietateari ematen diona (EHAA, 59. zk., 2009ko martxoaren 26a).
- 146/2015 DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa etxebizitzaren eta lurzoruaeren arloan. (EHAA, 146. zk., 2015eko abuztuaren 4a).
- AGINDUA, 2004ko azaroaren 26koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, «Etxebizitza Hutsaren Programa»ren baldintzei eta esleipen prozedurari buruzko Agindua aldatzekoa. (EHAA, 239. zk., 2004ko abenduaren 16a).
- AGINDUA, 2009ko azaroaren 4koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, «Etxebizitza Hutsaren Programa»ren lagapen-baldintzei eta esleipen prozedurari buruzko Agindua aldatzen duena. (EHAA, 225. zk., 2009ko azaroaren 23a).
- 466/2013 DEKRETUA, 2013ko abenduaren 23koa, Etxebizitza hutsen gaineko «Bizigune» programa arautzekoa. (EHAA, 247. zk., 2013ko abenduaren 30a).

**Etxebizitza birgaitzea:**

- AGINDUA, 2006ko abenduaren 29koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Etxebizitza Birgaitzeko Finantza-neurriei buruzkoa. (EHAA, 18. zk., 2007ko urtarrilaren 25a).
- AGINDUA, 2011ko azaroaren 23koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko Agindua aldatzeko dena. (EHAA, 226. zk., 2011ko azaroaren 29a).
- 317/2002 DEKRETUA, abenduaren 30ekoa, Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa. (EHAA, 249. zk., 2002ko abenduaren 31).
- Ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 DEKRETUAREN akatsak zuzentzea. (EHAA, 69. zk., 2003ko apirilaren 7a).
- AGINDUA, 2012ko uztailaren 18koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko laguntza-programa arautzen duena (REVIVE programa), Euskal Autonomia Erkidegoan eraikita dagoen ondarean esku hartzeko proiektuak egin eta horien ondoriozko obrak gauzatzeko. (EHAA, 146. zk., 2012ko uztailaren 27a).
- 241/2012 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duena. (EHAA, 241. zk., 2012ko abenduaren 14a).
- AGINDUA, 2013ko uztailaren 31koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitze eraginkorrerako laguntza-programaren deialdia eta arauak egiten dituen (RENOVE programa), Euskal Autonomia Erkidegoan eraikita dagoen ondarean esku hartzeko proiektuak egin eta horien ondoriozko obrak gauzatzeko. (EHAA, 157. zk., 2013ko abuztuaren 20a).
- AGINDUA, 2014ko azaroaren 26koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko agindua bigarren aldiz aldatzen duena. (EHAA, 229. zk., 2014ko abenduaren 1a).
- 80/2014 DEKRETUA, maiatzaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen dekretua aldatzen duena (EHAA, 101. zk., 2014ko maiatzaren 30a).

**Finantza-erakundeekiko lankidetzaren hitzarmena:**

- Kreditu-erakundeekiko 2011. urterako finantza-lankidetzarako hitzarmena, etxebizitza eta lurzoruen arloko jarduketa babesgarriari buruzkoa.
- 146/2015 DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, kreditu-erakundearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa etxebizitzaren eta lurzoruen arloan. Tramitatzen ari da (EHAA, 146. zk., 2015ko abuztuaren 4a).



***Babes ofizialeko etxebizitzetara bideratutako lurzoru-ondare publikoak osatzeko lurzoruak kostu bidez eskuratzeari dagozkion finantza-neurriak.***

- AGINDUA, 2010eko otsailaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Berehala eraikitzeko den lurzoruaren urbanizazioari aplikatzeko finantza-neurriei buruzkoa, babes publikoko etxebizitzak lehentasunez sustatzeko. (EHAA, 39. zk., 2010ko otsailaren 26a).

***ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza-programa.***

- 43/2012 DEKRETUA, martxoaren 27koa, Merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako ASAP programa (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) sortzeko dena. (EHAA, 66. zk., 2012ko martxoaren 30a).
- 180/2014 DEKRETUA, irailaren 23koa, Merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) programa sortzeko dekretua (martxoaren 27ko 43/2012 Dekretua) aldatzeko dena. (EHAA, 185. zk., 2014ko irailaren 30a).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Etxebizitza babesteko Sistema Ofiziala, diru-laguntzen modalitatekoa, etxebizitzak sustatzeko, erosteko eta birgaitzeko etxebizitza eta lurzoru arloan araututako jarduketara babesgarrien eremuan.

Sistema honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten kreditu-erakundeek maileguak ematen dituzte (Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta kreditu-erakundearen arteko finantza-hitzarmenaren eremuan), eta diru-laguntza zuzenen sistema eta maileguen interes-puntuetarako sorospenen sistema artikulatzen du, arauak ezartzen dituen babesteko kasu zehatzetan eta tasatuetan.

Sorospenen kasuan, jarduera babestuak etxebizitza babestuentzako lurzoruak erosteko eta urbanizatzeko eta alokairuko etxebizitzak sustatzeko izaten dira bakar-bakarrik.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen kasuan, etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko eta etxebizitza libre erabiliak erosteko ere izaten dira, aurreko bi helburuetarako ez ezik (lurzoruak eta alokairuak).

Diru-laguntzei dagokienez, jarduera-tipologiaren arabera ezartzen dira, eta diskriminazio mailakatu baten sistema baten bidez, onuradunen errenta-mailaren eta lurralde-intentsitate erlatiboaren arabera.

Gainera, Bizigune programa kudeatzen da, etxebizitza hutsak mobilizatzeko, eta ASAP programa (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzakoa.



4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

- Etxebizitza-programaren 2016ko aurrekontuan ezarri den lehen helburuak hauxe dio: «etxebizitza bat lortzeko aukera sustatzea, baliabideak lehenik eta behin etxebizitzak alokatzeko bideratuta», eta E adierazlean —finantza-egoera egokia eta egonkorra eskaintzea—, 150 milioi euroko helburu bat dago jasota Eusko Jaurlaritzaren eta EAEko kreditu-erakundeen arteko finantza-hitzarmenaren bidez finantzatzeko. Ekitaldiaren amaieran, helburu horren betetze-mailari buruz, jasota dago 31,5 milioi euroko finantzaketa eman zaiola sistemari.
- Balantze orokorrari dagokionez, 2016an behera egin dute, nabarmen, onartu diren maileguen kopuruak (-% 12,5) eta, batez ere, finantzaketaren zenbateko osoak (-% 54,9). Erakundeek, krisiaren ondorioz, erosteko mailegu gutxi eman dizkiete izan zitezkeen erosleei eta sustatzaileei, eta horri zor zaio asmoa hain neurri txikian bete izana. Maileguen zenbatekoa aztertzen badugu, etxebizitza erosteko maileguen batez bestekoa 100.000 eurokoa da.

*Onartutako maileguen laburpen-taula, 2013-2016 (2017-03-01ean eguneratutako datuak)*

Mota	2013		2014		2015		2016	
	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €
Sustapena	3	31.031	3	12.707	6	35.161	7	23.698
Birgaikuntza	244	1.864	197	1.478	192	1.341	186	1.447
Etxeb. sozialak erostea	4	266	3	160	3	130		
BOEak erostea	257	27.267	285	28.609	61	6.014	44	4.386
Etxeb. erabiliak erostea	41	4.378	46	4.688	25	2.417	19	1.970
Udaleko tasatuak erostea			7	940				
Alokairukoak erostea					1	3.740		
Zuzkidura-bizitokiak	2	5.125						
Guztira	551	69.931	541	48.582	288	48.803	256	31.501

- Birgaikuntzarako maileguetan arreta jarriz gero, ez da ikusten aldakuntza handirik, baina, orokorrean, behera egin dute kopuruari dagokionez, eta gora egin dute zenbatekoari dagokionez. Azterketa diferentziala eginda, ikusten dugunez, maileguen % 82,8 birgaikuntza bakandurako da; % 17,2, aldiz, birgaikuntza integraturako. Ehuneko horiek ia-ia berberak dira zenbatekoei dagokienez: % 80,8 bakanduan eta % 19,2 integratuan.



*Etxebizitzak birgaitzeko onartutako maileguak (2017-03-01ean eguneratutako datuak)*

Maileguak	2013		2014		2015		2016	
	Kopurua	Mila €	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €
Birgaitze bakandua	214	1.642	174	1.219	175	1.204	154	1.169
Birgaitze integratua	30	222	23	259	17	137	32	278
Guztira	244	1.864	197	1.478	192	1.341	186	1.447

- Diru-laguntzen ataleko emaitzei dagokienez, 2016ko datuek berresten dute diru-laguntzen % 99, kopuruari nahiz zenbatekoari dagokienez, birgaikuntzarako erabiltzen dela. Diru-laguntzen erdiak baino gehiago, % 53,7, egituran obrak egiteko erabiltzen dira; % 25,2, berriz, etxebizitzak egokitzeko.

*Etxebizitzen diru-laguntzak (2017-03-01ean eguneratutako datuak)*

Diru-laguntzak	2013		2014		2015		2016	
	Kopurua	Mila €	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €
Erosleak	7	37	4	18	194	74	87	65
Birgaikuntza	13.367	14.568	11.351	13.463	12.510	14.575	12.655	15.783
Guztira	13.374	14.605	11.355	13.481	12.704	14.650	12.742	15.848

Birgaikuntzarako diru-laguntzen banakatzea, obren arabera eta inbertsioen aurrekontu induzitu osoaren arabera (eurotan):

	2013	2014	2015	2016	Guztira
Diru-laguntza	14.567.889,99	13.463.117,51	14.575.218,37	15.782.901,65	58.389.127,52
Egitura	7.790.853,12	7.110.463,62	7.669.325,93	8.478.219,24	31.048.861,90
Akabera	151.906,19	130.113,44	120.956,69	141.416,27	544.392,59
Egokitzea	116,15	6.290,91	16.128,31	0,00	22.535,38
Moldatzea	4.539.966,54	3.720.045,92	3.452.873,23	3.974.373,49	15.687.259,19
Inguratzaila	1.312.105,17	1.790.595,76	2.305.610,03	2.793.333,84	8.201.644,80
Ordainsariak	772.942,99	705.605,62	1.010.326,20	391.422,65	2.880.297,46
Babespeko aurrekontua	247.906.365,38	226.624.312,48	233.487.768,49	266.888.691,25	974.907.137,60




- Alokairua sustatzeko diru-laguntza motari dagokionez, 2016an honako laguntza hauek eman dira.

Landa-eremua			
Udalerría	Kop.	Erakundea	Diru-laguntza
Baroja (Araba)	1	Administrazio Batzarra	77.400,00
Izoria (Araba)	2	Administrazio Batzarra	176.400,00
Leciñana (Araba)	1	Administrazio Batzarra	79.800,00
Guztira	4		333.600,00

Errentamendurako laguntzak					
Udalerría	Nº BOE	Entidad	Diru-laguntza	Sorospena	Guztira
Sestao	18	Sestaoko Udala	720.000,00	523.708,73	1.243.708,73
Donostia	162	Donostiako Etxegintza	6.966.000,00	7.155.990,00	14.121.990,00
Guztira	180		7.686.000,00	7.679.698,73	15.365.698,73

### BIZIGUNE PROGRAMA

*Biziguneren etxebizitza kopuruaren bilakaera (urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak)*




- 2016ko Etxebizitza Programak, helburuen artean, «etxebizitza bat lortzeko aukera sustatzea, baliabideak lehenik eta behin etxebizitzak alokatzeko bideratuta» aipatzen du, eta, zehazki, D ildoan, partikularren etxebizitzak alokatzeko eskaintza sustatzea, Bizigunen 5.750 etxebizitza sartzeko helburua zehaztuta.
- 2016. urtearen bukaeran, Bizigunek 4.499 etxebizitza libre zituen, alokairu babestuan erabiltzeko lortuta. Etxebizitza horiek honela banatzen ziren: Araban % 11,62, Bizkaian



% 62,39 eta Gipuzkoan % 25,98. 2016ko abenduko datuak oinarri hartuta, Bizigunek lortutako etxebizitza gehienetan –zehazki, 4.049 etxebizitza–, dauden maizterrek horrela konpondu dute etxebizitza-premia. Gainerako 450 etxebizitzetatik 297 amaiera-datan esleipen-prozesuan dauden txandakatze-etxebizitzak dira, 150 okupatu gabe daude eta 3 soilik daude esleitu gabe.

**ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), MERKATU LIBREKO ETXEBIZITZEN ALOKAIRURAKO BITARTEKARITZA-PROGRAMA.**

- Sortu zenetik, 18 agente laguntzailek eman dute izena: Araban 2, Bizkaian 6, Gipuzkoan 8, Alokabide (bulegoak ditu hiru lurralde historikoetan) eta entitate bat, Araban eta Bizkaian bulegoak dituena.
- 2016an lortutako etxebizitzaren kopurua bikoiztu egin da, eta kontratuen kopurua, berriz, hirukoiztu.







## 1.- Izenburua

**Hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak egiteko eta irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko udalentsako, udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeentzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako diru-laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2016ko uztailaren 8koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena. Horren bidez, hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak egiteko eta irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko udalentsako, toki-erakunde txikientzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako diru-laguntzak arautzen dira, eta horietarako, 2016ko ekitaldirako deialdia egiten da

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Gure ingurunea irisgarritasuna sustatzen duen abenduaren 4ko 20/1997 Legearen eskakizunetara egokitzeko, programaren helburua hauxe da:

- Irisgarritasun-planak egin eta eguneratzea, hiri-inguruneak, espazio publikoak, eraikinak, garraiobideak eta komunikazio-sistemak pixkanaka egokitzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean eta haren garapen-arauetan aurreikusitako irisgarritasun-baldintzetara.
- Udalen eta toki erakunde txikien irisgarritasun-planetan jasotako hobekuntza-lanak egitea Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko, eta, xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuen kasuan, hobekuntza-lanak egitea.
- Igogailu eta jasogailuak erosi eta instalatzea Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko, betiere udalen eta toki erakunde txikien irisgarritasun-planetan jasotakoaren arabera.

Irisgarritasun-planen eta horien eguneratzeen gain, honako jarduketak hauek hartuko dira aintzat:

- Eraikinetako irisgarritasuna (horizontala eta bertikala, igogailuak eta plataforma jasotzaileak, ateak, eskudelak, bainugela eta aldagela egokituak):
- Ibiak, arrapala ez-mekanikoak eta eskudelak sortzea.
- Hiri-izaerako igogailuak eta plataforma jasotzaileak.
- Mugikortasun urriko pertsonentzat aparkaleku-plazak erreserbatzea.
- Eraikinetako seinaleak eta ekipamendua egokitzea.
- Kaleak urbanizatzea (plataforma bakarreko kaleak, espaloiak zabaltzea, oinezkoen ibilbideak murrizteko igarobideak, eta zuhaitz-txorkoak ixtea).



4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016an, 400 proiektu onartzeko helburua ezarri zen. Aurrekontua 3.000.000 eurokoa izan da.

Diruz lagundutako proiektuak: 98 erakunde onuradunak, 168 jarduketarekin. Aurrekontu-partida nahikorik ez izateagatik, 94 obrak ez dute diru-laguntzarik jaso (13 obra Araban; 27 obra Bizkaian; eta 54 obra Gipuzkoan).

Programaren emaitzak hauek izan dira:

<u>LH</u>	<u>Erakunde kop.</u>	<u>Plan kop.</u>	<u>Planen zenbatekoa (€)</u>	<u>Obren kop.</u>	<u>Obren zenbatekoa (€)</u>	<u>Zenbateko osoa (€)</u>
Araba	26	4	37.789,91	40	512.263,19	550.053,10
Bizkaia	38	14	173.323,44	44	870.792,29	1.044.115,73
Gipuzkoa	34	8	91.130,56	58	1.314.700,61	1.405.831,17
Guztira	98	26	302.243,91	142	2.697.756,09	3.000.000,00



## 1.- Izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko bizilekuen eraikuntzaren eta hiri-habitataren sektoreko enpresei kudeaketa-sistemak ezartzen, jasangarritasuna bultzatzen eta berritzen laguntzeko proiektuak bultzatzeko diru-laguntzak, 2016ko Eraikal programa**

## 2.- Araua

Agindua, 2016ko irailaren 1ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikingintzaren sektoreko enpresetan kudeatzeko sistemak ezarri eta hobetzea sustatzeko, jasangarritasuna bultzatzeko eta berrikuntza indartzeko laguntzak arautu eta 2016rako iragartzen dituen (Eraikal programa 2016).

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Eraikal Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ekimen bat da, obra berrian nahiz birgaitzeko eta mantentzeko lanetan eta Eraikuntzen Ikuskapen Teknikoetan kalitatearen kudeaketa bultzatzeko. Era berean, eraikinak eraitsi eta birziklatzeko ekimena da, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikingintzaren eta hiri-habitataren sektoreko enpresetan eraikinaren balio-bizitza osoa barne hartzen duena, hala nola ingurumena, laneko arriskuen prebentzioa, jasangarritasunaren sustapena eta berrikuntzarako laguntza.

Eraikal tresnaren bitartez, EAEko bizitegi-eraikingintzaren sektorea eralda dadin lagundu nahi da, sektore hori sendotu eta lehiakor eta eraginkor bihurtzeko, enpresetan etengabe hobetzera bideratutako kudeaketa-praktikak ezarriz. Izan ere, behar-beharrezkoa da praktika horiek abiaraztea, ingurumena errespetatuko duten kalitatezko lan-prozesu seguruen arabera eraikitako etxebizitzak herritarren eskura jartzeko, horien eta oro har gizartearen beharrekin bat etorritz.

Honako ildo hauek hartuko dira diruz lagun daitezkeen esku-hartze modura:

- I. ildoak: berrikuntza-arloko proiektuak edo ikerketak:
- II. ildoak: Tresna informatikoak garatzea, dibulgazio-kanpainak, jardunaldiak eta ikastaroak egitea, sistema partikularren edo marken publizitaterik egin gabe eta puntu hauekin lotuta:
- III. ildoak:
  - ISO 9001, ISO 14001, ISO 14006 Normalizazioko Nazioarteko Arauetan, UNE 166002 Espainiako Arauan eta OHSAS 18001 Industria Segurtasun eta Osasun Okupazionalaren arloko Ebaluazio-arauan oinarritutako kudeaketa-sistemak ezarri eta ziurtatzea, eta horiek integratzea.
  - «Entsegu-laboregien gaitasunerako baldintza orokorrak» izeneko ISO/IEC 17025 eta «Ikuskatze-lana egiten duten hainbat motatako erakundeentzako funtzionamendurako irizpide orokorrak» izeneko ISO/IEC 17020 normalizazioko nazioarteko arauetan oinarritutako kudeaketa-sistemak ezarri eta egiaztatzea.
- IV. ildoak: Hiri Habitata



4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programaren emaitzak hauek izan dira:

<u>Ildoa</u>	<u>Aurrekontua</u> (€)	<u>Finantziatutako</u> <u>proiektu kop.</u>	<u>Emandako diru-</u> <u>laguntza (€)</u>
I Ildoa	200.000,00	11	268.960,00
II Ildoa	100.000,00	2	31.040,00
III Ildoa	100.000,00	25	100.000,00
IV Ildoa	480.000,00	11	480.000,00
GUZTIRA	880.000,00	49	880.000,00



## 1.- Izenburua

**Etxebizitzak eta eraikinak era efizientean birgaitzeko Renove programaren diru-laguntzak, Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eraikian esku hartzeko proiektuak prestatzeko eta haien ondoriozko obrak egiteko**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2015eko abenduaren 23koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, etxebizitzak eta eraikinak era efizientean birgaitzeko Renove Programaren 2016rako laguntzen deialdia arautzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eraikian esku-hartze proiektuak eta haien ondoriozko obrak egiteko.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen onuradun izan ahalko dira udalak, udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeak, etxebizitza-sozietate publikoak eta etxebizitzen sustatzaile publikoak. Proiektuetan proposatutako jarduketan xedea da erabilera nagusia etxebizitza duten familia askotako eraikinetan edo eraikin multzoetan esku hartzea, eraikinok gutxienez eraikinaren alde bat barne hartzen duten bloke askeak edo etxe-uharteak eratu arte taldekatuta egongo dira, eta 1980 baino lehen eraikitakoak izango dira, eta hiri- eta egitura-egokitzapena dutenak, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren arabera.

Programa honetako laguntzak jarraian zehaztutako jarduera-multzoa biltzen duten esku hartzeko proposamenek jaso ahal izango dituzte, betiere agindu honetan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte. Hona hemen jarduerak:

- Eraikinaren energia-portaera hobetzea
- Eraikinen irisgarritasuna hobetzea
- Segurtasun-baldintzak hobetzea
- Bizigarritasun-baldintzen hobekuntza lortzeko jardunak
- Energia-monitorizazioa

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016ko ekitaldian, 1.200 etxebizitzatan eragina izatea jarri zen helburutzat programa honetan.

Aurkeztutako eskarrietatik, 20 Jabeen Erkidego onartu ziren, guztira 446 etxebizitza:

<u>LH</u>	<u>Atari kop.</u>	<u>Etxebizitza kop.</u>	<u>Emandako diru-laguntza (€)</u>
Bizkaia	13	188	2.184.321,35
Gipuzkoa	7	258	2.184.321,35
Guztira	20	446	4.368.642,70



Honako hau da jarduera hautagarrien arabera finantzatutako etxe kopurua:

LH	Etxebizitzak	Energia-efizientzia			Irisgarritasuna		Segurtasuna
		Eskaria murriztea	Kontsumoa murriztea	Energia berriztagarriak erabiltzea	Zero kota	Igogailua instalatzea	Hobekuntza
Bizkaia	24	BAI	BAI	-	-	BAI	BAI
Bizkaia	24	BAI	BAI	-	-	BAI	BAI
Bizkaia	7	BAI	BAI	-	-	BAI	BAI
Bizkaia	48	BAI	BAI	BAI	-	BAI	BAI
Bizkaia	12	BAI	BAI	-	-	BAI	BAI
Bizkaia	26	BAI	BAI	-	-	BAI	BAI
Bizkaia	10	BAI	BAI	BAI	-	BAI	BAI
Bizkaia	6	BAI	BAI	-	BAI	-	BAI
Bizkaia	35	BAI	BAI	-	BAI	-	BAI
Bizkaia	2	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Gipuzkoa	11	BAI	BAI	-	-	BAI	BAI
Gipuzkoa	18	BAI	BAI	BAI	-	BAI	BAI
Gipuzkoa	29	BAI	BAI	-	-	BAI	BAI
Gipuzkoa	120	BAI	BAI	-	-	BAI	BAI
Gipuzkoa	80	BAI	BAI	-	BAI	-	BAI

Tauletatik honako hau ondorioztatzen da:

- Diruz lagundutako proposamenen % 100ek hiru esku-hartze jarduketa biltzen dituzte: eraikinaren energia-efizientzia, irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzea. Horietatik % 73,33tan, irisgarritasuneko hobekuntzen artean, igogailurik ez zeukaten eraikinetan igogailua instalatzea jasotzen da.
- Diru-laguntzaren xede diren proposamenen % 100ek berokuntzaren eta hoztearen eskaria % 30etik gora murrizten dute.



## 1.- Izenburua

**Birgaitze Integratuko Areetan edo Bizitegi Area Degradatuetan urbanizatutako eta eraikitako ondarea birgaitzeko diru-laguntzak**

## 2.- Araua

- AGINDUA, 2007ko maiatzaren 2koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, birgaitzeko edo berritzeko eta jasotze topografikoak egiteko diru-laguntzak arautzen dituena (EHAA, 88. zk., 2007ko maiatzaren 9a), AGINDUAK, 2013ko urriaren 23koak, aldatuta.
- AGINDUA, 2015eko abenduaren 14koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Birgaitze Integratuko Areetan edo Bizitegi Area Degradatuetan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko diru-laguntzak ematea arautzen duen Etxebizitza eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2007ko maiatzaren 2ko Aginduan ezarritako agiriak idazteko laguntzen deialdia egiten duena.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea honako agiri hauek idaztea da, eta dagozkien obra-proiektuetan biltzen diren obrak, urbanizazio-elementuak —eta, hala badagokio, hiri-altzariak— urbanizatu edota eraisteari, kontserbatzeari, zaharbertzeari, eraberritzeari edo zabaltzeari buruzkoak:

## a) Alde historikoei buruzkoak:

- Gizarte-hirigintza azterketak edota hirigune historikoak birgaitzeko plan bereziak idazteko, baita 1/200 edo 1/500 eskalan egindako jasotze topografikoak idazteko ere.
- Urbanizazio-elementuak —eta, hala badagokio, hiri-altzariak— kontserbatzeko, zaharbertzeko, eraberritzeko edo zabaltzeko beharrezkoak diren obrei buruzko proiektuak, betiere obra horiek Birgaitze Plan Bereziatiko zehazpenetan halakotzat bildu badira eta eremuko jabeei obra horien kostua esleitzen ez bazaie urbanizazio-betebehar gisa.
- Birgaitze Integratuko Areetako urbanizazioen —bereziki, eraikin eta urbanizazioak eraitsi ondoren egin diren urbanizazioen— lehen ezarpena egiteko obra/proiektuak, betiere obra horiek berariaz halakotzat hartuta badaude Birgaitze Plan Bereziatan.
- Urbanizazioak erabat edo partez eraisteko obrei buruzko proiektuak, baldin eta abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren I. eranskinaren xedea eta betebeharrak betetzen badituzte birgaitze esku-hartzeak zehazteari dagokionez (317/2002 Dekretua, Ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jardun babestuei buruzkoa).

## b) Bizitegi-area degradatuei buruzkoak:

- Bizitegi Area Degradatuei buruzko azterlan soziourbanistikoak.
- Birgaitze integratuko plan bereziak edo birgaitze zein berrikuntzako programa



estrategikoak.

- 1/200 edo 1/500 eskalan egindako jasotze topografikoak.
- Urbanizazio-elementuak –eta, hala badagokio, hiri-altzariak– kontserbatzeko, zaharberritzeko, eraberritzeko edo zabaltzeko beharrezkoak diren obrei buruzko proiektuak, betiere obra horiek Birgaitze Plan Bereziatiko edo Birgaitzeko edo Berritzeko Programa Estrategikoetako zehaztapenetan halakotzat bildu badira eta areako jabeei obra horien kostua esleitzen ez bazaie urbanizazio-betebehar gisa.
- Urbanizazioen –bereziki, eraikin eta urbanizazioak eraitsi ondoren egin diren urbanizazioen– lehen ezarpena egiteko obra-proiektuak, betiere obra horiek berariaz halakotzat hartuta badaude Birgaitze Plan Bereziatan edo Birgaitzeko edo Berritzeko Programa Estrategikoetan.
- Urbanizazioak erabat edo partzialki eraisteko obrei buruzko proiektuak, ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jardun babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren I. eranskinaren xedeak badituzte eta betebeharrak betetzen badituzte, birgaitze-esku-hartzeak zehazteari dagokionez.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016ko deialdian 13 entitatek eskatu zituzten laguntzak 43 proiektutarako. Haietatik, 11 entitateei eman zaizkie 654.865,98 euro 28 proiektu prestatzeko. Programaren aurrekontua 700.000 eurokoa izan da.





## 1.- Izenburua

**Eskolako Agenda 21 programak garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko diru-laguntzak (2016-2017 ikasturtea)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2016ko apirilaren 20koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena eta Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, Eskolako Agenda 21 programa garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko diru-laguntzak arautzen dituena (2016-2017 ikasturtea).

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bidez laguntzak ematen dira unibertsitatez kanpoko ikastetxeek 2016-2017 ikasturtean Eskolako Agenda 21 programa gara dezaten. Asmo horrekin, ikastetxeetan egingo diren jarduerak jasangarritasunerako hezkuntza proiektu bakar batean integratuko dira eta honako hiru alderdi hauek izango ditu: parte-hartzea, kudeaketa jasangarria eta curriculum-berrikuntza.

Ezinbestekotzat jotzen da erakundeei diruz laguntzea, ikastetxeetan jasangarritasunerako hezkuntzako berariazko proiektuak jartzeko martxan; izan ere, proiektu horiek, batetik, ikastetxeko hezkuntza- eta curriculum-proiektuetan nahiz geletako programazioan ikuspegi hori sendotuko dute, eta, bestetik, ikasleak edo hezkuntza-komunitateak garapen jasangarrian konpromisoa hartzeko gaituko dituzten kontzientzia, gaitasuna, ezagupena eta balioak garatzen lagunduko dute.

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko zein itunpeko pribatu guztiek parte hartu ahal izango dute deialdian, baldin eta Eskolako Agenda 21 programa ezarrita badago ikastetxeak kokatzen diren udalerrietan.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdian emandako diru-laguntzen eta esleitutako proiektuen laburpena honakoa izan da:

<u>LH</u>	<u>Proiektuak</u>	<u>Zenbatekoa (€)</u>
Araba	43	59.320
Bizkaia	234	321.490
Gipuzkoa	173	219.190
GUZTIRA	450	600.000

2016/2017 ekitaldian, aurreko kurtsoan esleitutako ikastetxeen kopuru berdina izan dela ikus dezakegu, 450 ikastetxe, aurtien Eskola Agenda 21n parte hartzen duten EAEko derrigorrezko hezkuntza ez unibertsitario ikastetxeen artean %63a suposatzen dutelarik.



229.322 ikasle eta 800 irakasle Eskola Agenda 21 programan parte hartzen dute, eta horretaz gain irakaslegoa ez den pertsonala eta udal teknikariek ere hartu dute parte.

“Eskola Jasangarria” aintzatespena titulua lortu duten ikastetxeen zenbatekoari buruz, 2016an 92 ikastetxe daukate titulu hori EAEn, 2015ean baino bi gutxiago. Beraz, behintzat ikastetxe kopuru bera mantetzearen helburua ez dugu lortu aurten.



## 1.- Izenburua

**Ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuentzako diru-laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2016ko abuztuaren 30ekoa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiten dituzten irabazte-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako diru-laguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta laguntzon deialdia egiten duena (184.zkia 2016ko irailaren 27koa).

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dituzten ingurumen-boluntariotzako honelako proiektuak finantzatzea: ingurune fisikoaren gaineko ekintza zuzenak egiten dituztenak, hain justu ingurumen-boluntarioek era libre, altruista eta irabazte-asmorik gabekoan egindakoak badira ekintzok, eta horretaz gain, erakunde sozialek koordinatzen badituzte, zertarako-eta, ondoren aipatutako eremuetakoren batean, ingurunea hobetu eta babesteko:

- Ingurune naturala
- Babestutako naturguneak
- Hiri-ingurumena
- Mintegien edo hazi-bankuen bidez landare-espezie eta –barietateak kontserbatzea
- Flora eta faunako espezie babestuak eta mehatxatuak eta haien habitata kontserbatzeko ikerlanetan kolaboratzea

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Honako hau da 2016ko deialdian emandako diru-laguntzen eta diruz lagundutako proiektuen laburpena (aurrekontua 112.000 eurokoa izanda):

<u>LH</u>	<u>Proiektuak</u>	<u>Zenbatekoa (€)</u>
Bizkaia	8	76.724,88
Gipuzkoa	4	35.275,12
GUZTIRA	12	112.000,00

3 proiektuk ez dute diru-laguntza jaso gutxieneko puntuaziora iritsi ez direlako, eta beste 2 proiektuk dirua amaitzeagatik.

Jarduera motak:

- Hondakinen garbiketa: 6 Proiektu. Aurten lehengo aldiz, kobazuloetan Aurrera eramandako garbiketak egingo dituen proiektu bat dago.
- Euskal kostaldeko hondarren gaineko sentsibilizazio kanpaina: 2 Proiektu. Horietako bat,



itsasoan MATER itsasuntziarekin egindako zabor bilketa.

- Bertako espezieekin zuhaixketako landatzea esparru naturaletan: Proiektu 1
- Ingurune eta paisajistikoa zaharberritzea: 2 Proiektu
- EAEn Kontserbazioa eta urlehortarren habitat mantenua: Proiektu 1

Deialdi honetan, eskaeren kopurua igo da 3 eskaeretan aurreko 2015 urtearekiko. Parte hartu duten pertsonen kopurua ere nabarmenki igo da, 1.057 pertsonatik, 1.530 pertsonetara pasatuz.



## 1.- Izenburua

**Informazio geografikoa hobetu eta udal mapak egiteko diru-laguntzak ematea**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2016ko ekainaren 9koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta horiek emateko deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko udaletarako, informazio geografikoa hobetu eta udal mapak egin ditzaten.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Xedea udal-mugarteko mapa digitala egiteko gastuetarako diru-laguntzak ematea da. Horrez gain, nahi izanez gero, mapa paperean ere egin daiteke; horretarako, mapa topografikoan jarri ohi diren elementu guztiak batu, berrikusi eta kokatu behar dira, eta honako hauek agertu behar dira, gutxienez: toponimia, kale-izendegia eta interes publikoko zerbitzuak, instalazioak eta hiri elementuak.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016ko aurrekontuen memorian, 25 udali diruz laguntzea aurreikusten zen. 22 eskaera aurkeztu ziren, baina horietako bat bikoiztuta zegoen; beraz, arxibatu egin zen. Gainontzeko 21etatik, 5 utzi ziren bertan behera, deialdian eskatutako baldintzak ez betetzeagatik. Hortaz, 16 udali lagundu zitzairen diruz (Arabian, 4; Bizkaian, 3; eta, Gipuzkoan, 9).

Diru-laguntzen guztizko kopurua 139.244,67 € izan zen, hau da, helburu horretarako erabilgarri zegoen aurrekontuaren % 70 (200.000 €).

Udal mapak egiteko eskaeretan beherakada izan den arren, adierazi beharra dago kontsulta asko izan direla eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan.

Mapa horien erabilgarritasunari eta inpaktu sozialari dagokienez, azpimarratu beharra dago udalentsat eta herritarrentzat zein garrantzi handia duen bizi diren udalerraren toponimia ezagutzeak, baita kale-izendegia, udal-elementuak, bideak, inguruak eta kartografia oro har eguneratuta jasotzen dituen mapa izateak ere.

Aginduan jasotako entregagaiak ahalbidetzen dute jasotako informazio digital hori jakinarazi eta errazago erabiltzea udalak eta herritarrek. Gainera, informazio-iturria dira, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzentzat, toponimia zehazteko, eta EUSTATentzat, kale-izendegi eta atarien inguruko datu-base bateraturako. Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzarentzat ere



oso baliagarria da, kartografia ofizialaren mantentze-lanetarako.

Horri guztiari erantsi behar zaio aginduak ezartzen duela datu horiek hainbat administrazioen web-orrialde ofizialetan argitaratzeko betebeharra, zabalkunde osoa lortzeko.



## 1.- Izenburua

**Paisaiaren Ekintza Planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2016ko ekainaren 1ekoa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira Paisaiaren Ekintza Planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak emateko deialdia iragartzen

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da Paisaiarako Ekintza Planak prestatzeko oinarri arautzaileak ezartzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak emateko deialdia iragartzea.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Jarraian, lortutako emaitzei dagokienez, programan aurreikusitako adierazleak eta magnitudeak jasotzen dira:

<u>Adierazlea</u>	<u>Magnitudea</u>	<u>Lortutako emaitzak</u>
Aurkeztutako eskaerak	34	21
Emandako eskaerak	12	13
Emandako diru-laguntzek zenbat biztanlerengan izan duten eragina	94.200 biztanle	277.865 biztanle
Diruz lagundutako planak exekutatzeko aurrekontua	25.000,00 €/Plana	23,859,61 €/Plana, batez beste